

COVID-19a dela-eta, gure udalekuak haurren beharretara eta egoera honetara egokitu ditugu. Horretarako prestatu dugu jarraian aurkezten dizuegun protokolo hau, ahal den neurrian, udalekuetako parte-hartzaileen segurtasuna babesteko eta COVID-19aren transmisioa saihesteko. Irakurtzera gonbidatzen zaituztegu, eta etxean dagokizuen zatia betetzeko eskatzen dizuegu, gure aldetik ere, udalekuetan halaxe egingo dugularik.

Nolanahi ere, neurri horiek aldatu egin daitezkeela gogora arazi nahi dizuegu, une bakoitzeko egoeraren arabera eta osasun-agintarien gai honekiko aginduen arabera.

### **Topagunea**

- Talde bakoitzak bere topagunea izango du harrerarako eta agurrerako. Honen bidez aglomerazioak ekidingo ditugu.
- Topagunean, taldeari dagokion begiraleak egingo die harrera eta agurtuko ditu.

### **Nola arituko gara taldean?**

- Taldeek gutxieneko eta gehieneko parte-hartzaile kopurua izango dute, agintari eskudunek ezarritako muga, betiere espazio bakoitzaren ezaugarriak eta talde bakoitzaren berezitasuna kontuan hartuta. Antolatzaileok ikastaroak bertan behera uzteko ahalmena izango dugu gutxieneko parte-hartzaile kopurua ez badago. Nolanahi ere, talde bakoitzeko parte-hartzaileen kopurua egokitzen saiatuko gara, ahal den neurrian, parte-hartzaileak bertan behera ez uzteko.
- Taldeak adinean anitzak izango dira, sailkapen bakarra egingo delarik: alde batetik 3-5 urte bitartekoak eta bestetik 6-11 urte bitartekoak. Sailkapen horren baitan, ez ditugu haurrak adinaren arabera taldekatuko, aukeratutako ordutegiaren arabera baizik. Aniztasun honen onurak baliatuko ditugu jardueretan.
- Talde bakoitzak begirale bat izango du izendatuta. Begirale hori bera izango du egun eta jarduera guztietarako, eta ez da gainerako taldeekin harremanduko, oso kasu berezietan izan ezik. Horrelakoetan, ordezko bat izendatuko dugu.
- Talde bakoitzak gutxienez begirale laguntzaile bat izango du, eguneroko jardueretan laguntzeko eta COVID-19 delakoaren ondoriozko segurtasun, higiene eta osasun neurri eta protokoloak betetzen laguntzeko.
- Halaber, begiraleen zein laguntzaileen lan eta jarduera guztiak koordinatzeko arduradun bat izango dugu.
- Taldeak koloreen bidez bereiztuko ditugu, eta lehen egunean kolore horretako kamixeta jantzita etortzeko eskatuko dizuegu.
- Talde bakoitzak bere espazio propioak izango ditu, barne espazioa (eguraldi txarra denerako eta beste taldeekin partekatuko ez duena) eta kanpo espazioa. Barneko espazioak behar adina zabalak dira eta behar bezala aireztatuta egongo dira.
- Hurrek beren motxilak eta biserrak ekarri beharko dituzte etxetik, behar bezala identifikatuta.
- Anai-arrebak edo elkarrekin bizi diren haurren kasuan ere, bakoitzak bere motxila eta materiala eraman beharko du, eta ezin izango dute elkarrekin partekatu, taldeek ez baitute elkar eragingo eta talde independente gisa funtzionatuko baitute maila guztietan.
- Hurrek etxetik beraien maskara ekarriko dute eta motxilan gel hidroalkoholikoa, paperezko musuzapiak eta eguzkitako krema ere eraman beharko dituzte, norberak berea erabiltzeko. 6 urtetik gorako hurrek une oro maskara jantzita edukiko dute, eta

txikiek, aldiz, familien aukeraren arabera erabilera egingo dute, espazio itxietako jarduerak salbuetsita, non haur guztiek maskara jantziko duten.

- Zira, jertsea eta bestelako arropa ekarriz gero, soinean ez dituztenean, beraien motxilan gordeko dituzte.
- Haur bakoitzak bere kantinplora eta hamaiketakoa ekarri beharko ditu eta ezin izango ditu inolaz ere partekatu.
- Ez da etxetik material edo jostailurik ekarriko, aurreko puntuetan aipatutakoak izan ezik.
- Era berean, taldeei esleitutako espazioek gune berezi bana izango dute motxilak modu ordenatu batean (pilatu gabe) gordetzeko, haurrek erraz identifikatu ahal izango dutelarik.

#### **Nola arituko gara bazkal orduan?**

- Bazkaria, hamaiketakoa bezalaxe, norberak berea ekarri beharko du.
- Talde bakoitzak bere espazio propioan bazkalduko du, barnekoan ala kanpokoan, eguraldiaren arabera.
- Bazkal orduan ere, taldea bere ohiko bi begiraleekin egongo da, talde bakoitzak modu isolatuan jarraituko duelarik.
- Saiatu mesedez hondakin gutxi sortzen duen hamaiketakoa zein bazkaria ekartzen: fruta, tupperrak, bocanrolla, ... Kutxa-Ekoguneko udalekueetan erronka bat dugu: hondakin gabeko hamaiketako zein bazkari bat egiteko gai izango al gara?

#### **Nolakoak izango dira gure jarduerak?**

- Jardueretan, COVID-19ak sortu duen egoera ikuspegi anitzetatik, tartean emozionala, lantzeko berariazko saioak gehitu ditugu.
- Kanpoan egiten diren jarduerak lehenetsiko ditugu: baldintza meteorologikoek edo bestelako gorabeherak hala eskatzen dutenean soilik egingo ditugu barneko espazioetan.
- Jarduerak berrantolatu egin ditugu, fisikoki isolatuta dauden taldeetan egin ahal izateko, dagozkien begiraleen zaintzapean.
- Egungo zirkunstantziak direla-eta, eta ahal den neurrian, taldean ere segurtasun-distantziak errespetatuko ditugu, eta etengabeko kontaktua duten jarduerak eta ariketak egitea saihestuko dugu.
- Materialik behar ez duten jarduerak lehenetsiko ditugu. Erabiltzea beharrezkoa den kasuetan, lan-material berezia erabiliko dugu talde bakoitzerako (margoak, arkatzak, eta gainerako elementuak) partekatu gabe, eta egunero material horien garbiketa eta desinfekzio sakona egingo dugu.

#### **Nola indartuko ditugu higiene- eta prebentzio-neurriak?**

- Seinaletika (berariazko mezuak eta kartelak) indartu egin dugu, portaera, segurtasun-distantzia, higiene-neurriak eta abar gogorarazteko.
- Garbiketa- eta desinfekzio-lanak areagotu egin ditugu, laneko higienezaren eta osasunaren arloan eskumena duten agintariek emandako gomendioen arabera.
- Begiraleek COVID-19 prebentzioko berariazko prestakuntza jaso dute, eta uneoro taldeari azalduko dizkiote ondo bete beharreko neurriak, eremu itxietan zein kanpoko espazioetan.

- Era berean, begiraleek ziurtatuko dute haurrek eskuak maiz garbitzen dituztela. Horretarako, gel hidroalkoholikoak, paperezko musuzapiak eta erabiltzen den materiala botatzeko ontzi espezifikoak jarri ditugu leku estrategikoetan, hala nola harrera-lekuan, beste leku batzuetarako sarreretan, geletan eta abarretan.

#### **Udalekuetan parte hartu aurretik egunero etxean hartu beharreko segurtasun neurriak**

- Udalekuetara joan aurretik, haurren tenperatura etxean neurtu eta inolako sintomatologiarik ez duela egiaztatu behar duzue.
- 37 gradu edo gehiago baditu, 10 minutu itxaron eta berriro ere tenperatura neurtzea komeni da; beharrezkoa bada, 5 minutu igaro ondoren beste neurketa bat egin ezazue. Behin eta berriz 37 gradu baino gehiago neurtuz gero, haurrak ezingo du udalekuetara joan eta zuen osasun zentrorra deitu beharko duzue jardunbideak jaso ahal izateko. Udalekuetako arduradunari ere honen berri eman beharko diozue.
- Etxetik irten aurretik eguzkitako krema eman behar diozue haurrari eta eskuak garbitu arazi, urarekin eta xaboiarekin, modu sakon eta luzean.
- Haurrei, lasai egon daitezen, uneoro eta edozein gauzatarako begiraleen laguntza izango dutela gogora araztea komeni da, eta bereziki, gaizki sentitzen badira. Laguntzeko gaude!

#### **Zer egin sintomarik agertuz gero?**

- Haurrak COVID-19arekin lotutako sintomatologiarik badu (sukarra, eztula, arnasteko zailtasuna, ondoeza orokorrean ...) ez du udalekuetara etorri behar, ez eta COVID-19 birusak jotako pertsona batekin harremana izan badu ere. Zuen osasun zentrorra deitu beharko duzue jarraibideak jasotzeko eta, aldi berean, udalekuetako arduradunarekin harremanetan jarri egoera horren berri emateko.
- Udalekuetako arduradunek eta begiraleek egunero harrera unean haurren osasun egoerari buruzko galdera egingo dizuete, eta era berean, goizean zehar sintomatologiaren inolako zantzurik somatu orduko tenperatura hartuko diote haurrari.
- COVID-19 gaixotasunarekin (sukarra, eztula, arnasteko zailtasuna, ondoeza orokorrean...) zerikusia duten sintomak somatuz gero, zuei jakinaraziko zaizue, haurra jaso dezazuen. Bitartean, haurra begirale laguntzaile batekin egongo da, goxotasunez baina taldetik urrunduta. Ondoren, zuen osasun zentroarekin jarri beharko duzue harremanetan. Bertan egoera baloratuko dute. Uneoro udalekuetako arduraduna informatuta mantentzea eskatzen dizuegu.

#### **Zer egin COVID-19 kasu egiaztatu bat agertuko balitz?**

- Haurra COVID-19a diagnostikatu dioten pertsona batekin harremanetan egon bada, udalekuetako arduradunari eta osasun-erakundeei jakinarazi behar diezue eta haurra etxean eduki.
- Udalekuko langileen edo haurren artean COVID-19 kasu bat baieztatuz gero, udalekuko arduradunek telefono bidezko arreta-zerbitzuari edo dagokion osasun-zentroari jakinaraziko diote argibideak jasotzeko. Ezarritako jarraibideak beteko ditugu eta modu koordinatuan jokatu dugu. Era berean, taldeko familiei edo legezko tutoreei egoeraren berri emango dizuegu. Taldearen jarduerak bertan behera uztea beharrezkoa izatea gerta daiteke, berrogeialdian sartuz taldeko haurrak zein begiraleak, osasun-zentroak hala adierazten badu. Espazio itxi guztiak eta taldeak erabilitako material guztia sakonki garbituko eta desinfektatuko ditugu.
- Bereziki zainduko dugu infektatutako pertsonaren pribatutasuna eta konfidentzialtasuna, horretarako sortutako protokoloei jarraikiz eta datuen babesari

buruz indarrean dagoen legeria errespetatuz.

- Jarduera bertan behera uztea beharrezkoa izanez gero, burutu gabe geratu denari dagokion proportzioa itzuliko dizuegu.
- Osasun-agintariak emandako jarraibideei jarraituz, baliteke txanda osoko jarduera bertan behera utzi behar izatea. Orduan, udalekuetako programak erabiltzen dituen espazio eta material guztiak sakonki garbituko eta desinfektatuko ditugu, eta burutu gabe geratu denari dagokion proportzioa itzuliko dizuegu.
- KUTXAGESTION ZERBITZUAK S.L.U.-k eskura dituen protokoloak eta neurriak erabat errespetatuta ere COVID-19 kasuren bat emango balitz, ezin izango diozue kalte-ordainik eskatu KUTXAGESTION ZERBITZUAK S.L.U.-ri, arestian aipatutako diru-itzulera proportzionala salbu.

**OHARRA:** protokolo hau udalekuetako parte-hartzaileen eta, zeharka, familien segurtasunerako landu dugu. Hori dela eta, parte hartzaile edo laguntzaile bategi ezarritako protokoloak behin eta berriz betetzen ez baditu, antolakuntzak, parte-hartzaile horrek udalekuetan ez jarraitzeko eta izen-emateari dagokion dirua ez itzultzeko erabakia hartzeko eskubidea izango du.